

noaua

**Bidegorri sarea
handituz doa**

**Erraustegia geratzeko
manifestazioa antolatu
dute otsailaren 29rako**

**Larunbat honetan,
Euskal Inauteri Festa
Zubietan**



**Aitor Agirre:
“Ohituta nago
besteak mozorrotuta
ez daudenean
mozorrotuta ibiltzera”**

Opariak eta barruko landareak



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Zetako bidea
(Uzbekistan)

AZKEN PLAZAK

BIDAIK TALDEAN

DENBORALDI AURRERAPENA

Eslovenia & Istria



NOAOA
BIDAIK

LASARTE ORIAK, NOAOAK GIDATUA

943 37 36 13 info@noaoa.eus **noaoa.eus**

BAZKIDEEN TXOKOA

otsailaren 21ean Zozketatuko dugu:

URDAIRA SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO afari edo bazkaria

NOAUAREKIN TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / eukartea@noaua.eus

Albisteak iruditan

Bidegorri sarea handituz doa

Pikaola inguruan, joan etorrian da-biltzanak jabetuko ziren. Duela astebete hasi ziren Murkaiku arteko bidegorria egiten. Udal iturriek aditzera eman dutenez, beste bi hilabetez luzatuko dira lanak.

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua

“Ekonomia zirkularra oinarri hartuta, eraikuntzetatik birziklatutako materialak erabiliko dira”, udal iturriek aditzera eman dutenez. Eta honi esker, Eusko Jaurlaritzak 80.000 euroko dirulaguntza emango dio Usurbilgo Udalari. “Hasieran, 142.500 euroko kostua zuten lanek, baina laguntza horrekin, erdia baino pixka bat gehiago aurreztuko du Udalak”.



Pikaola eta Murkaiku arteko bidegorria egiteko lanak martxan dira. Argazkia: usurbil.eus

Laburrean

1956an jaiotakoen bazkaria

1956 urtean jaiotakoek bazkaria antolatu dute. Otsailaren 29an batuko dira, eguerdiko 14:00etan, Saizar jatetxean. Bertara joateko asmoa baduzu, honako telefono zenbakira deitu: 943 370 255 (Mari Kar-men).

Google aplikazioei buruzko ikastaroa

■ Otsailak 17-26, 9:00-11:00 “Kudeatu zaitez Google aplikazioekin”.

Informazio gehiago: Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Herriko argazkilarien erakusketa

Einean guraso eskolak antolaturiko ikastaroen artean da Ibai Arrietak oinarritzko argazkilaritzari buruz eskaintzen duena. Ikasleek eginiko argazkien bilduma ikusi ahal izango duzue Sutegiko erakuslehoan, otsailaren 10etik 23ra.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaidea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaqua.eus // www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatoria:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Disinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegoza.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aritz Gorriti

Zaldibar = Zubieta

Biak mendien magalean eraiki dituzte, “ezkutu” samarrean. Baina gorde ezin dena, goizago edo beranduago agerian geratzen da. Kea darie biei. Kiratsa, kirats izugarria, hitzaren zentzurik zabalenean. Bietan irregular-tasun salaketak. Eta bietan ari gara entzuten, ingurumena eta osasuna lehenesteko aldarriak, gertatzen ari dena argitzeko deia. Irtenbide, konponbide eske han eta hemen. Bietan herritarak, eragileak gertatzen ari dena plaza publikoan salatzen. Bizitzen ari diren bidegabekeria onartezinaren aurrean erantzukizun eske. Baina eskaeren pareko erantzunik ez da gaurkoz.

Lata da gero. Egunitan ikusten ari garenak, Zaldibar eta Zubieta inoiz baino gehiago hurbildu ditu. Orain arte peajedun bideak, autopista batek lotzen zituen. Joan den ostegunaz geroztik bidegabekeriak. Hau ez da lan istripu

soil bat izan. Erraustegiaren kasuan bezala, irregularitasunak egon badirela agerian utzi behar izan dute eragile zein hedabideek, zaintza lana egitea egokitzten zitzairen erakundeen aurretik. Agintariek beraiek guztion hondakin ezin publikoagoen kudeaketa esku pribatuaren utzi eta negozio bilakatzen denean gertatzen denaren ispilu dira Zaldibar eta inguruak. Zubietan bezala. Negozioa lehenesten segitzea da helburu nagusia, gainerako guztiaren gainetik. Baita amiantoa pilatzen ari badira ere.

Baina estaltzen aritutakoa agerian geratu da. Eta orain, zaintza lana egitea zegokien agintariak gune hau esku pribatuek kudeatzea ahalbidetu ostean, haien aurka jo dezaketela diote. Desagerturiko langileak aurkitu ezinik, sutea, zer aieratzen ari den ez dakigun ke kutsakorra...

Baina bada gaurkoz estaltzen ari diren beste eztabaidarik ere. Hondakinak, erantzukizunez,

modu jasangarrian kudeatuko balira, denetariko gaiak (arriskutsuak barne) nahastuan pilatzen ari zen gune baten beharrik izango al zuten Zaldibarren? Gogoan izatekoa da, bestelako irtenbide bat izan zezaketen lehengaiek desagerrarazi dituztela bi langileak.

Justizia, egia eta erreparazioa nahi badugu kasu honetan, desagertuak aurkitu, gertaturikoa eta erantzukizunak argitu, eta noski, berriz halakorik ez gertatzeko beharrezko neurriak hartzea ezinbestekoa litzateke. Baina horretarako hondakinaren kudeaketa ereduaren gaiari sustraietatik heldu behar litzaioke eta gaurkoz, zaurien gainean sarritan egin izan den moduan, petatxuak jartzeko asmoa gailentzen ari dela dirudi.

Zaborteagari eraiki nahi dioten metroetako harresi berriak, altu askoa izanda ere, harresi ahula izango du. Segurtasuna, osasuna eta ingurumena lehenesteko harresirik sendoena,

halako guneen desagerpena litzateke eta. Baina gaurkoz egoera hau kudeatzen ari diren agintariek bide luzea lukete egiteko norabide horretan, egun sustatzen ari diren ereduaren ispilu diren Zubietako erraustegia eta Zaldibarko zaborteagari lotzen dituen autopistako bidea baino luzeagoa. Eta hori da kontua, agintean direnek ez dutela, herritarren osasuna, ingurumena eta alternatiba jasangarri zein merkeagoak aintzakotzat hartuko dituen konponbide adostuaren bidea jorratu nahi, ezta horretarako “peajerik” ordaindu nahi ere. “Hobe” zertxobait altxa den “alfonbra” ahalik eta azkarren berriz bere lekuan jartzea eta kiratsa darion gatazka hau ahal bezain laster estaltzea. Erraustegiarekin egiten ari diren moduan. Zaldibarkoak gogorarazten digu Zubietan zer gertatzen ari den.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Itxaso Orbegozo

Urteurren afaria Aginaga Sagardotegian

Aginaga Sagardotegia ireki zuteneko 28. urteurrenako afaria ospatu zuten otsailaren 7an. Mikel Alkorta eta Ane Azkonobieta trikitilariek girotu zuten gaualdia. Sagardotegia goraino betea egon zen.



Mikel Alkorta eta Ane Azkonobieta trikitilariek girotu zuten gaualdia.

Udalak lokal hutsen inbentarioa osatu du

Udalak herriko merkataritza sustatzeko lokal hutsen inbentarioa osatu du, eta Iametza Interaktiboa enpresak aipatu inbentarioa bistartzeko webgunea garatu du. Helbide honetan topatuko duzue: www.iametza.eus

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Erraustegiaren aurka eta guztion bizitzaren aldeko mobilizazio eguna antolatu du Ernaik

Ez dute onartzen ustelkeriarik, “ez dugu onartzen gure lurrarekin eta osasunarekin jolasterik, ez dugu onartzen zuen poltsikoak betetzeko proiektu txikitzaileak eraikitzea. Ustelen legea errausta eta kea besterik ez delako, gu bizitzak erdigunean jartzera gatoz”, iragarri zuen Ernai gazte erakundeak, otsailaren 6an Lasarte-Oriako Okendo plazan egindako agerraldian.

Laster erraustegia piztu arren, argi dio gazte antolakundeak; “argi adierazi nahi dugu ez dugula etsiko eta borrokan jarraituko dugula”. Mobilizazio eguna deitu dute otsailaren 27rako; erraustegiari lotutako deialdien agendan dituzue xehetasunak. Ernai bera kide duen Larreko Mahaia hilaren 29rako Donostian deitutako manifestazioarekin bat egin du baita.

Interes ekonomikoak, herri interesen gainetik

EAJ-k PSEren laguntzaz zabaldu nahi duten eredia sinbolizatzen du erraustegiak Ernairen esanetan; sistema kapitalista heteropatriarkalaren ikono bat gehiago dela gogorarazten du. “Argi dago erraustegiak ez diola herriaren interesei erantzun, gutxi batzuen poltsikoen mesedeei baizik”, eta gazte antolakundeak ohartarazten duenez, “herritarren hitzari entzungor egin eta gu guztiok heriotzera kondenatuko gaituen proiektua” izango da. Ulergaitza deritzo azpiegitura honen aldeko apustua egitea garai hauetan, larrialdi klimatikoaren gaia gizartearen erdigunean kokatua dagoenean.

Bizitzaren aldeko apustua

“Alferrikako azpiegitura ku-



“Ustelen legea errausta eta kea besterik ez delako, gu bizitzak erdigunean jartzera gatoz”, iragarri zuen Ernai gazte erakundeak, otsailaren 6an Lasarte-Oriako Okendo plazan egindako agerraldian.

ERNAI

“Argi adierazi nahi dugu ez dugula etsiko eta borrokan jarraituko dugula”

tsakor eta garestiak eraikitzeari utzi eta beste bizimodu baten aldeko apustua egin beharra dago”. Ernai gazte erakundearen esanetan, “gu guztion bizitza erdigunean jarritz eta ez gutxi batzuen etekin ekonomi-

koa. Beraz, gazteok argi dugu, herriaren aurkako iruzurrik ez dugu onartuko. Merkatua eta interes pribatuak lehenesten dituen ereduaren aurrean, bizitzaren aldeko apustua egiten dugu”.

Erraustegia geratzeko agenda

Otsailak 13, osteguna

■ 20:00 Olaia Inziarte bakar-laria Mikel Laboa plazan. Antolatzailea: Aztarrrika Gazte Asanblada.

Otsailak 15, larunbata

■ 11:00 Hitzaldia Sutegin: “Zer du erraustegiak ezkutuan?”. Antolatzailea: Aztarrrika Gazte Asanblada.

Otsailak 22, larunbata

■ 18:00 Inauteri Festako karrozari segika, gazteok Aztarrrika! Dj ibiltaria Aztarrrikaren karrozarekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
■ 20:00 Aztarrrikaren eskutik performantzia frontoian. Antolatzailea: Aztarrrika Gazte Asanblada.

Otsailak 27, osteguna

■ 12:00 Ikasleen mobilizazioa



Larreko Mahaia manifestazioa deitu du otsailaren 29rako. Donostiako Easo plazatik abiatuko da, arratsaldeko 17:00etan.

AZTARRIKAK ANTOLATUTA

“Zer du erraustegiak ezkutuan?” hitzaldia, larunbat honetan Sutegin

Donostiako Gipuzkoa plazatik.
■ 19:00 Gazte mobilizazioa Lasarte-Oriako Okendo plazatik. Deitzailea: Ernai gazte antolakundea.

Otsailak 29, larunbata

■ 17:00 “Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!” aldarripean, erraustegia geratzeko manifestazioa Donostiako Easo plazatik. Deitzailea: Larreko Mahaia.

Martxoak 3, asteartea

Erraustegia “ofizialki” piztu dezaketen balizko eguna.

Erraustegia geratzeko manifestazioa antolatu dute otsailaren 29rako

Piztu nahi duten Zubietako erraustegiaren aurka, “osasuna, ekonomia eta klimatik, ez erre etorkizuna!” aldarripean manifestazioa deitu dute otsailaren 29an Donostian. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Easo plazatik.

“Laster gipuzkoarrentzat egun garrantzitsuak datozkigu”, diote besteak beste, CCOO, LAB, STEILAS eta EHNE sindikatuak, ikasleen sindikatuak, Greenpeace eta Eguzki talde ekologistak, Ernai gazte erakundea, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Extinction Rebellion eta GuraSOS biltzen dituen Larreko Mahaitik.

Erraustegia ofizialki martxan jartzeko eguna hurbiltzen doan honetan, “erraustegia geldituko dugula ozen adierazko unea” dela gogorarazten dute. Isilarazi nahi dituztenen aurrean batu, hitza hartu, erabaki, negozio aukera berriak ireki nahi dizkioten “kapitalismo berdeari ateak itxi” eta “ingurumenaren zaintza ardatz duten eredu iraunkorreko atxikimendua eman eta konpromiso kolektibo eta politikoa hartzeko” unea.



Otsailaren 29an, arratsaldeko 17:00etan abiatuko da manifestazioa Donostiako Easo plazatik.

ANTOLATZAILEAK

“Agintariei exijitzen diegu otsailaren 29an Donostiako kaleetara aterako garen herritar guztion hitza entzun dezatela”

“Erraustegia piztuko badute ere, hurbil izango gaituzte”

Erraustegiaren baimena bertan behera uztea eskatzen dute eta “agintariei exijitzen diegu otsailaren 29an Donostiako

kaleetara aterako garen herritar guztion hitza entzun dezatela. Jakin dezatela borroka hau ez dela inoiz amaituko: dena baitugu irabazteko”.

Argi diote, “errausketarik gabeko herri eta lurralde baten aldeko borroka ez da inoiz amaituko, osasunaren, justizia sozialaren eta demokraziaren aldeko borroka baita”. Eta honenbestez, galtzeko ezer ez, “dena dugu irabazteko”. Horregatik, “dei egiten diogu Gipuzkoako herritar eta langile

orori otsailaren 29an Donostian izango den manifestazioan parte hartzera!”. Agintariei herritarren hitza entzutera galdegiten diete ohartarazpen hau egitearekin batera. “Erraustegia piztuko badute ere, hurbil izango gaituzte, urte luzez izan gaituzten bezala, haien itzal, hitza eta erabakia herritarrona dela oroitaraziz, makro proiektu injustu eta antisozialak salatuz eta ingurune eta jendarte hau bizigarriagoa egiteko borrokan jarraituz”.

Otsailaren 5ean, berriro ke zutabeez inguratuta



Gehiagotan errepikatu izan den irudia jaso genuen otsailaren 5ean. Erraustegia ofizialki piztetik gertuago kokatu gaitzakeen irudia. Errauskailua ke zutabeez inguratua. “Ofizialki” probaldi fasean dute, martxoaren 3an piztu dezakete edo bestela esanda, ehuneko ehun jar dezakete martxan.

Santa Ageda bezperako eskaera, “erraustegia kentzea”



“Guk nahi genuke oraintxe bertan denok ondo bizitzea, aire garbia arnastu eta erraustegia kentzea”. Hortxe Santa Ageda bezperako kantu eskean, Udarregi Ikastolako LH-ko ikasleek galdegin zutena frontoian eskaini zuten kopia saioan.

21 milioi euroko zorra, erraustegiaren kontratua ez betetzeagatik

Urtarrila amaierako agerraldiaren ildotik mintzatu zen GuraSOS iragan astean egin zuen bigarren agerraldian. Zubietako erraustegia eraikitze kontratuaren inguruko xehetasun gehiago eman zituen argitara. Kontratuaren funtsezko baldintzak ez direla betetzen salatu zuen, erraustegiak haien seme-alaben osasunean izan dezakeen eraginagatik kezkatutako guraso taldeak hilaren 6an Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean eskainitako prentsaurrekoan. Kontratua bete ez izanagatik, “erraustegiaren emakidadunek 21 milioi euro ordaindu beharko lituzke penalizazio moduan”.

Zubietako erraustegiaren eraikitzaileek 21 milioi euro zor ditzaketela salatu zuen GuraSOSek, kontratuko hainbat arau hautsi dituztelakoan. Batetik, erraustegia eraiki eta martxan jartzeko lanen epea ez dutela bete salatu zuten. Kontratua formalizatu ostetik zenbatzen hasita, 26 hilabeteko epea finkatu zen Zubietako erraustegiaren eraikitze lanak amaitzeko eta beste lau hilabete martxan jartzeko. Epeok ez dira bete. GuraSOSek eskainitako datuen



Agerikoa da eraikitze lanetan nahiz pizte prozesuan izan den atzerapena, eta horrek dagokion penalizazioa dakarrela ohartarazten du GuraSOSek.

GURASOS

Zubietako erraustegiaren eraikitzaileek 21 milioi euro zor ditzaketela salatu zuen GuraSOSek, kontratuko hainbat arau hautsi dituztelako

arabera, 2017ko apirilaren 3an formalizatu zen erraustegia eta TMB plana diseinatu, eraiki eta finantzatzeko kontratua. Egutegia eskutan, iazko ekainaren 3an amaitu behar zuten eraikitze lanek eta lau hilabeteko probaldia igarota, urriaren 3rako martxan behar zuten Zubietako erraustegiak.

Gaurkoz ordea, gogoan izan, erraustegia martxan jartzeko

iragarria dagoen balizko data martxoaren 3a da. Agerikoa da eraikitze lanetan nahiz pizte prozesuan izan den atzerapena. Eta horrek dagokion penalizazioa dakarrela ohartarazten du GuraSOSek.

Kontratua iraungi eta lau hilabetera luzapen eskaera

Horregatik dio, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) abenduaren 16an egin zuen asanbladan onartu zuen “akordioa zalantzarik gabe legez kontrakoa da”. Bertan martxoaren 3ra arteko eraikitze lanen luzapena onartu zuten.

GHK-ren erabakia legez kontrakoa dela dio GuraSOSek, obrak berez ekainaren 3an amaitu behar zituztelako, kon-

tratua orduan amaitzen zen. Izatez aurrez egin behar zuten arren, ia 4 hilabete igaro ostean eskatu zuten enpresa eraikitzaileek lanen epea luzatzea, irailaren 27an. “Egikaritze epea luzatzeko eskaria kontratistak atzerapena eragin duen arrazoi gertatu eta gehienez 15 eguneko epean eskatu behar zuen”. Lanak luzatzeko arrazoiaren artean 2017an izandako euriteak eta ekainaren 11n transformadorean izandako matxura aipatzen dira. Honenbestez, euriteak gertatu eta bi urtera aipatzen da obren atzerapenaren arrazoi hau, eta matxura gertatu eta ia lau hilabeteren ostean.

GuraSOSek gogorarazten duenez ordea, obren esleipendunak lanen luzapena aipatu epeen baitan eskatzen ez badu, “bere eskubideari uko egiten diola ulertuko da. Halaxe dio argi eta garbi aipaturiko erregelamenduaren 100. artikulua. Kontratua iraungitzat joko da aurreikusitako epea amaitzean, hots, ekainaren 3an, non eta ez den luzapena eskatu eta non eta Administrazioak ez duen luzatzeko akordioa hartu. Eta nolanahi ere, administrazioi klausula berezien agirian adierazitako penalizazioak ezarritako”.

“Obra bukatzeko epea 2019ko ekainean amaitzen zen”

Baina badira GuraSOSek agerian jarritako xehetasun gehiago ere epeei dagokienean. “Egitan obrak egiteko epea 9 hilabetez luzatzen dela, eta ez 5, zeren obrak amaitzeko epea 2019ko ekainaren 3an amaitzen zen, kontratuan ezarri bezala”.

GuraSOSek egoera honen aurrean hainbat galdera planteatu ditu. Ekainaren 3rako amaitu behar bazituzten lanak, lanak garaiz ezingo zituztela

amaitu jakinik, nolatan irailaren 27ra arte ez duten lanak luzatzeko eskaria bideratzen eta “are okerrago, GHK-k inolako errekerimendurik ez egin izana eta erabakirik hartu ez izana? Zergatik GHK-k, berriz ere, gezurra esan beharra izan du atzerapenaren arrazoiak?”.

Helburu bakarra du GHK-k GuraSOSen esanetan, “kontzesiodunari 20 milioi euroko kontratu-karga ordainarazi beharra eta kontratuaren ku-

deaketa txarra izan dela eta haren hutsaltzea jendaurrean aitortu beharra saihestea”.

21 milioi euro atzerapenengatik

Obren atzeratzeagatik, eraikitze lanez arduratzen ari den enpresa taldeak gutxienez 21 milioi euroko penalizazioa ordaindu beharko lukeela kalkulatu du guraso taldeak. Eguneke 60.000 euroko eta 30.000 euroko penalizazio bana obren

amaiera epea ez betetzeagatik. Urtarrilaren 31ra arte 18,12 milioi euroko zorra pilatua lukete, GuraSOSen kalkuluen arabera.

Eta kopuruak hazten jarrai dezake. “Horri eguneko 20.000-30.000 eurora arte batu beharko lirateke 51.2 i) klausulan, r) atalari lotutako “arau-hauste larriagatik”. Hain zuzen, “industria-polizaren arautegia bete gabe transformadorea eraiki eta abian jartzeagatik”.

Ekimen judizial eta administratibo berriak

Erraustegia eraiki eta martxan jartzeko kontratuari lotutako arau haustek agerian uztearekin batera, ekimen judizial eta administratiboak iragarri ditu GuraSOSeK. Haien eskariz, EHBilduk eta Elkarrekin Podemosek guraso elkartearen eta Ingurumen Sailburu Iñaki Arriolaren agerraldi eskaera bana erregistratu dute. Otsailaren 11n Ingurumen Baimenaren iraungitze eta baliogabetze adierazpenari lotutako errekursoaz EAEko Auzitegi Nagusiaren deliberazioa eta epaia jasotzekoa zen GuraSOS.

Duela bi asteko Ingurumen Baimenaren iraungitzeari lotutakoarekin batera, errekurso bat aurkeztu du Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean, abenduaren 16ko GHK-ren asanbladan erakitze lanak martxoaren 3ra arte luzatzeko hartutako erabakia-



Baimenaren iraungitze eta baliogabetze adierazpenari lotutako errekursoaz EAEko Auzitegi Nagusiaren deliberazioa eta epaia jasotzekoa zen GuraSOS.

GURASOS

Ingurumen

Baimenaren iraungitzeari lotutakoarekin batera, errekurso bat aurkeztu du Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean

ren aurka. Hitzartutako lanen amaiera epea ez betetzeagatik

eta Industria Sailaren baimenik gabe transformadorea eraiki eta abian jartzeagatik kontzesiodunari kontratuan aurreikusitako penalizazioak aplikatzeko eskaera ere aurkeztu dute.

“GHK-k kontzesiodunari helarazitako mezua egizu nahi duzuna babestuko zaitugu eta oso arriskutsua da, eta jasan ezina gure seme-alaben segurtasun eta osasunerako. Eta

horretan bai, GuraSOS aurrez aurre izango dute”.

Onartuz gero, kontratuaren hutsaltzea

Ohartarazpen argia egin du GuraSOSeK. “Ekimen judizial horiek baietsiz gero, ondorio gisa kontratua hutsaltzea ekarriko luke, hain zuzen kontzesiodunari egotz dakioken kontratuaren funtsezko baldintzak ez betetze larriagatik, eta diru-kutxa publikorako diru-sarrera, kontzesiodunak ordaindu behar duena”.

GuraSOSeK egin bezala, erakundeei ere dagokiena egitera deitzen dituzte “eragindako udal eta Mankomunitateei eta Ministerio Fiskalari, behar diren ekintzak abiarazi ditzaten, hartara guztiz legez kontrakoak diren jarduketak kontrol demokratikotik kanpo gelditzea saihestearren, eta era berean, denon diru-kutxa defenda dezagun”.

Erraustegira bisita ofiziala egitea onartu dute Gipuzkoako Batzar Nagusiek

Hala erabaki zuten Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako otsailaren 7ko Batzordean. Eskaera Elkarrekin Podemosek aurkeztu zuen. “Gipuzkoako Ingurumen Gunea Eskuzaitzeta poligonoan kokatzen da, Zubietan inguruan, eta proiektua hasi zenetik bukatu duten arte eztabaida, aurkaritza eta kezka sortu ditu, Gipuzkoako herriarren zati baten artean. Zentroaren egitura gehienak martxan jarri dituzte, horien artean zepak balorizatzeko planta bukatuta dago, bai eta gunea osatzen duten gainerako egiturak ere, eta horregatik uste dugu oso interesgarria dela batzordeko kideak, gehi interesa duten batzarkideak, zuzenean

ezagutzea Gipuzkoako Ingurumen Gunearen instalazio guztiak eta bakoitza”.

Elkarrekin Podemos:

“Azalpenak jasotzea interesgarria da denontzat”

Batzordean bertan, Elkarrekin Podemoseko ordezkari Maria Valientek zioenez, ingurumeneko oso garrantzitsutzat jo zuen proiektu honen berri prentsaren bidez jasotzen dutela zioen; “nola luzatzen ari den proiektua. Badakigu bukatu gabe dagoela. Beti prentsaren bidez informatu ordez, proiektua une honetan nola dagoen ondo jakiteko iruditzen zaigu bisita bat egitea eta azalpena jasotzea interesgarria dela denontzat”.

EHBildu: “Gu kritikoak gara bertaratzearekin informazio zuzena izango ote dugun”

Proposamenaren alde bozkatu zuten batzorde horretan ordezkariak duten Elkarrekin Podemos, EAJ eta PSEko 8 batzarkideek. EHBilduko 4 ordezkariak abstenitu egin ziren. Abstentzioaren zergatia azaldu zuen Ainhoa Intxaurrendietak. Elkarrekin Podemosek eginitako eskaera bideratzearen alde agertu zen, bisita gauzatzearen alde alegia, “baina gu kritikoak gara bertaratzearekin informazio zuzena izango ote dugun”.

Intxaurrendietaren esanetan, “guk bertaratzeak ez digu egoera konkretuaren berri zehatza emango. Gu azkenean

ez gara teknikariak. Badakigu bisita hauen aurretik nola prestatzen diren instalazioak. Guk han ikusiko duguna ez da izango errealtatearen isla zehatza edo konkretua”.

Bat egin zuen Elkarrekin Podemosek adierazitakoarekin, alegia, Zubietako azpiegituraren garapenaren berri hedabideen bidez jasotzen ari direla. “Ez luke hala izan behar, baina gu bertaratzearekin ez dut uste edukiko dugunik benetazko irudia edo zein den benetazko azpiegitura horren egoera. Iruditzen zait txosten teknikoak eduki beharko genituzkeela eskura, eduki beharko genukeela kontratua bere osotasunean eta hori da izaten ari ez garena”.

OSASUN GIDA 2020



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Irati Ibargoiien FISIOTERAPIA-OSASUNA

PSIKOLOGIA

- Terapia individualak
- Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

- Indibiduala
- Taldeak

BESTE TERAPIA MOTAK

- Presoterapia

FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
- Zoru Pelbikoko tratamenduak
- Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
- Fisioterapia eta osteopatia funtzionala
- Puntzio lehorra
- FIM (fibrolisis instrumental miofascial)



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ez. USURBIL



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika
33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua
- Etaz-etaeko zerbitzu tekniko espezializatua
- Etxebizitzaren egokitzapena



Osakidetzarekin
hitzarmena



Errekalde, 59. Donostia 943 105 205 www.zenta.es



• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

www.oinutsik.com - 943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna onetatik

Paralelotasunak, Zaldibarko zabortegiaren eta Zubietako erraustegiaren artean

Gaur ezin dugu saihestu burua eta bihotza Zaldibarren izatea. Gure elkartasuna eta hurbiltasuna helarazi nahi diegu Zaldibarko bizilagunei eta istripuak erasandako langileei (instalakuntzako langileei, hondakinak kentzeko lanetan jardundakoei, asistentzia eta polizia zerbitzuei), adierazi du GuraSOSe ohar bidez.

Zubietako erraustegiarekiko paralelismoak badu guraso taldearen esanetan Zaldibarko zabortegian jazotakoak. GuraSOSen esanetan, “zoritarrez Zaldibarren gertaturikoak eta oso larria izan den istripuari buruz egin den informazioaren kudeaketa okultistak gure borrokaren egokitasunean berresten gaitu”.

Gardentasun eta informazio falta

Aipatu zabortegiko gertakariaren eta Zubietako erraustegiaren arteko “paralelotasunak marrazteari ezin diogu utzi”, adierazi du GuraSOSe.

Zubietako erraustegiaren kontratuaren harira azken asteotan salatu dituzten irregulartasunekin bezala, Zaldibarko zabortegiko istripuaren kasuan, “berriz ere gardentasun eta informazio falta eta osasun zein ingurumenarentzat arriskutsuak diren eta ingurumen kontrol egokirik gabe egiten diren jardueren kudeaketa pribatua aurkitzen ditugu”.

Hondakinen kudeaketa, enpresa pribatuen esku

Onartezintzat jotzen du GuraSOSe, osasun eta ingurumen arazo handiena ez bada handienetarikoa den hondakinen kudeaketa “irabazi ekonomikoak izatea xede duten enpresa pribatu eta multinazionalen



GuraSOSe ohar bidez elkartasuna eta hurbiltasuna helarazi nahi die “Zaldibarko bizilagunei eta istripuak erasandako langileei”.

GURASOS

Urteak daramatza osasuna zein ingurumena lehenetsiko dituen hondakinen kudeaketaren planifikazio falta salatzen

esku egotea; izan Urbaser (Zubietako erraustegiaren kasuan) edo Verter Recycling (Zaldibarko zabortegiko kudeatzailerak), beti segurtasunaren eta osasunaren bizkar”.

GuraSOSe gogorarazi duenez, urteak daramatzate benetazko beharretan “eta ez bulkada interesatueta” oi-

narrtuta egon eta osasun zein ingurumena lehenetsiko dituen hondakinen kudeaketaren planifikazio falta salatzen.

Zaldibarko zabortegiaren baimena erraustegiaren urte berekoa da

Zaldibarren jazotakoak Zubietako erraustegian gertaturikoarekin lotura zuzena egin du GuraSOSe. “Azken bi asteotan erraustegiaren agintariak Donostiako erraustegia martxan jarri asmo duten emakidadunekin izandako mesede-tratua salatu dugu. Erraustegia martxan jarri aurretik gertaturiko istripu bat ezkutatzea lehenbizi, eta gero, izan duen ga-

rrantzia txikiagotzea araudia urratuz eta Ingurumen Baime-naren tramitazioan izandako irregulartasun larriak”. Zaldibarko zabortegiaren baimena erraustegiaren urte berekoa da, 2016koa. Erraustegiari emandakoaz epaia kaleratzekoa zen astearte honetan EAEko Auzitegi Nagusia, GuraSOSe abiarazitako ekimen juridikoari. “Aukera ezinhobea beraz, bostere judizialak argi eta garbi esan dezan ingurumenaren, bizitzaren eta osasunaren defentsan ez dagoela bidezidorrak”.

“Ingurumen justizia beharrezkoa da”

Mundu mailako ingurumenaren egoera eta “gure industrializaturiko herrian” bereziki hain da larria egoera” GuraSOSen esanetan, “amore-emaila ez den ingurumen justizia beharrezkoa egiten dela”. Guraso elkarteak gogorarazten duenez, “epaile eta auzitegien zeregina administrazioaren jardunaren legaltasunaren kontrola eta norbanako nahiz kolektiboaren eskubide eta interesen babesa da”.

“Kontuz ama naiz!” kartelak salgai

GuraSOSe abiarazitako kanpainaren baitan parte hartzen ari den ama taldea, ekimena iragartzen duten kartelak saltzen hasi da asteburuetan. Aurrerantzean, ostiralean 18:00-20:00 artean, igandeetan 12:00-14:00 artean aurkituko dituzue, frontoi inguruan jarriko duten postuan. Hemen NOAAri helarazi dioten argazkia.



Ostiralean 18:00-20:00 artean eta igandeetan 12:00-14:00 artean aurkituko dituzue frontoi inguruan.

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarrilaren 18tik maiatzak 3ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com

IRUIN sagardotegia

TXOTX denboraldi
berria 2020. primerako
sagardookin
943.361.229



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



943 37 39 95

Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA aginaga

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10



Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenea



Aitor Agirre: “Inauteri hauetan, tradizioari lotutako mozorrorik ere izango dela pentsatzen dut”

Inauteri festa ospatuko da Usurbilen hilaren 22an, eta zenbait mozorroa prestatzen hasita izango dira. Dantza gai hartuta denetariko mozorroak sortzeko aukera irekita dago. Aitor Agirre usurbildarra dantzaria da azken urteetan, eta dantzaren mundua barru barrutik ezagutzen du. NOAUA! berarekin izan da dantza eta mozorrotzea uztartzeko berandu dabiltzan horiei laguntzatxo bat emateko asmoz.

NOAUA! Gustoko dituzu Inauteriak?

Aitor Agirre: Inauteri zalea naizenik ez nuke esango, mozorrotzea asko gustatzen zait hala ere. Urte osoan zehar ekitaldi asko izaten ditugu, eta asko mozorrotzen naiz. Ohituta nago besteak mozorrotzen ez zirenean mozorrotuta ibiltzera. Inauterietan mozorrotzen naiz, baina ez dira egun seinalatuegiak niretzat.

Aurten zuretzat oso egokia den gaia hautatu da, ‘Dantza’. Mozorrotzeko asmorik ba al duzu?

Mozorrotzeko asmoa badaukat, baina beti azkeneko momentuan ibiltzen naiz. Antolatze lanetan nahiko lan badut, dantza taldekook emanaldia badugu eta.

Nondik datorkizu dantzarekiko gertutasun hori? Etxetik jaso izan duzu?

Ni bost urterekin hasi nintzen dantzan, ez dakit oso ongi zergatik. Zaletasuna eta ohitura ere hartu nuen dantzara joatekoa eta urtero izen emanda, gaurdaino iritsi arte. Usurbilen lehen haurrentzat baino ez zegoen aukera dantzan ibiltzeko. Behin 12 urte beteta aukera eskaini ziguten Donostian jarraitzeko akademia batean,



“Niretzat espresatzeko modu bat da”, adierazi digu Aitor Agirrek. “Gustura sentitzen naiz dantzan”.

AITOR AGIRRE

“Mozorrotzeko asmoa badaukat, baina beti azkeneko momentuan ibiltzen naiz. Antolatze lanetan nahiko lan badut, dantza taldekook emanaldia dugulako”

eta han hasi ginen. Usurbildik jende askorik ez zen joan urte luzeetan eta beldur pixka bat ere bagenuen. Hiru usurbildar hasi ginen eta gazte talde ba-

tean aritu ginen hasieran, eta gero helduen taldera pasatu ginenean dudak sortu zitzaizkigun jarraitu nahi ote genuen edo. Azkenean jarraitzea erabaki genuen, eta oraindik ere dantzan jarraitzen dugu.

Beste dantza motarik egin izan duzu inoiz euskal dantzez gain?

Euskal dantzen munduan denetarik egin dut. Proiektu bat ere izan genuen eskuartearen euskal dantza eta flamenkoa biltzen zituen, eta hor fla-

menko pixka bat ere egin genuen. Landu ez dut besterik egin, kurtso batzuetan eta ibili nintzen joan zen urtean. Ibili beraz diziiplina gehiagotatik ibili naiz, baina landu, landu ez.

Zerk erakartzen zaitu gehien dantza mundu horretatik?

Egia esan niretzat espresatzeko modu bat da, gustura sentitzen naiz dantzan. Askatzeko modu bat gisa ulertzen dut, eta inolako lotsarik ez dudanez erabat aske aritzen naiz.

“Dantza mota asko daude munduan”

NOAUA! Zer mozorro mota presta daiteke ‘Dantza’ gaitzat hartuta?

Aitor Agirre: Dantza mota asko daude munduan. Betiko dantza horietaz ziur aski jende asko mozorrotuko da: balleta, salsa... Jende gaztearen artean iruditzen zait Amerika aldeko zenbait mozorro ere ikusiko ditugula High School Musical eta gisa horietakoak.



Orbeldi Dantza Taldearekin eta Ttipikarekin maiz ikusi dugu plazan.

Tradizioari lotutako mozorrorik ere izango dela pentsatzen dut, mozorro original horien bila.

“Nire kasa bertsotan aritzen naiz noizbehinka, autoan eta...”

NOAUA! Dantzan abila zara, baina iaz Usurbilen koplak abesten ere aritu zinen. Bazu bertsolari sena?

Aitor Agirre: Sena ez dakit, baina nire birraitonaren anaia bertsolari nahiko ezaguna omen zen, eta ni ere Udarregiko bertso taldean aritu nintzen 8 bat urte nituela. Lagunartean txapelketaren batean ere parte hartu genuen. Hor amaitu zen nire bertsolari ibilbidea, ez zen oso luzea izan. Beste bide batzuk hartu nituen kirola eta dantzarekin, eta utzi egin nuen bertsolaritza. Usurbilen talde bat sortu behar zutela jakin nuenean parte hartzea ideia ona iruditu zitzaidan. Egunerokotasunean hitza ez dut gehiegi erabiltzen: ez dut idazten, ez dut gehiegi irakurtzen... Bertsoak entzun eta saioak ikustera joatea asko gustatzen zait, ordea, eta nire kasa bertsotan aritzen naiz noizbehinka autoan eta.



Iazko Santa Ageda bezperan koplatan aritu zen kantari.

EGITASMO EZBERDINETAN

“Tio Teronen Semeak bezalako talde batean aritzeak konpromiso handia eskatzen du. Orain, modu lasaiago honetan, gustura nago”

Orduan taldearen aukera hori ikusita egokia iruditu zitzaidan

buruari buelta batzuk ematen hasteko aprobetxatzea.

“Lotsa aspaldi galdu nuen” Zer da zailagoa dantzan ongi egitea edo bertsotan aritzea?

Dantzan gehiago edo gutxiago jakin gustura aritzen naiz, lotsa aspaldi galdu bainuen. Inprobisatzeko gaitasun hori lortu dut urteekin. Bertsotan pentsatutakoa kantatu behar

badut ere urduri jartzen naiz, trebetasuna ez diot oraindik hartu.

Tio Teronen Semeak taldean ikusi izan zaitugu. Bertako partaide zara edo zer nolako lotura duzu taldearekin?

Tio Teronen Semeak taldean duela urte pare bat jendea falta zuten emanaldi puntualen baterako, eta hango arduraduna nire irakaslea izan zenez, ea animatuko nintzen galdetu zidan. Entsegu bakar bat eginda joan nintzen lehen egun horretan. Horrelako egoeretan zeudenean deitu egiten zidaten, eta urte batean 20 bat emanalditan parte hartu nuen. Ez naiz kidea, baina ordezko modura ikusten dut nire burua. Tio Teronen Semeak bezalako talde batean aritzeak konpromiso handia eskatzen du, eta orain modu lasaiago honetan gustura nago.

Zubietarrak izango dira Inauterietan murgilduko diren lehenak

Zubietak abiatuko ditu Inauterietako ospakizunak, otsailaren 15ean Lasarte-Oriarekin senidetuko duten Euskal Inauterietan. Astebete beranduago ikastetxeen txanda eta Usurbilgo Inauteri Festa. Aurten dantzaren bueltan ospatuko dugu mozorro festa.

Otsailak 15, larunbata Euskal Inauteria Zubietan:

- 16:30 Zubietako plazan ekitaldia. Ondoren, Zubietatik Okendora kalejira.
- 17:00 Desfilearen hasiera: kalejira Lasarten barrena.
- 19:00 Senidetzea, dantza eta suaren ekitaldia.
- Amaitzeko, txokolate jana Okendo plazan.
- Oharra: eguraldi txarrarekin, festa 17:30etan Oriarten.

Otsailak 21, ostirala Inauteriak ikastetxeetan:

Aginagako Eskola

- 15:00 Txaranga osatu eta kalejira egingo dute Aginagan barrena. Geldialdietan, dantza eta kantu saioak.

Zubietako Eskola

- 15:30 Zubietako Eskolako inauterietako kalejira. Ibilbidea: Eskola, Alamandegi, Barazar eta plaza eguraldi onarekin. Euria bada, frontoian.

Udarregi Ikastola

- 10:15 HHkoen festa Usurbilgo frontoian. Giro euritsua bada, Oiardo Kiroldegian.
- 11:00 LHko ikasleen desfilea herrian barrena.
- 11:45 DBHko ikasleen ikusizuna Kiroldegian. LHkoak

ikasle moduan bertan izango dira.

- 15:30 LHko ikasleen “Gure esku ez dauden gauzak” ikusizuna Kiroldegian.

Oharrak:

- Kiroldegirako sarbidea futbol zelai aldeko atetik izango da. Ikusizuna baino 20 minutu lehenago irekiko da atea.
- Kiroldegiko ikusizunerako ikasle bakoitzak sarrera bat izango du etxera eramateko. Horrez gain, Kiroldegiko sarreraren txartelak banatuko dira emanaldia ikustera sartu nahi dutenentzat.

Otsailak 21, ostirala Usurbilen:

- 19:15 Luzaideko konpartsa- ren kalejira.
- 20:15 Luzaideko Bolantak

frontoian.

Otsailak 22, larunbata Inauteri Festa Usurbilen:

- 12:00 Familia plana Zirimarako kideekin, Mikel Laboan.
- 12:30 Kalejira Gaztelekuko herensugearekin, Burrunbazale txarangarekin. Azken dantza frontoian.
- 16:00 Karaoke festa eta bingo Gaztelekuan.
- 18:00 Dj ibiltaria Aztarriaren karrozarekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 20:00 Aztarriaren eskutik performantzia frontoian.
- 00:00 Dantza festa Iñorkinak eta Kilimak taldeekin. Elkarlanean: NOAUA!, Udala, Orbeldi, Zirimara, Gaztelekua, Aztarrika Gazte Asanblada.

LAB kritiko, Michelinekin sinatu den lan hitzarmenarekin

Hitzarmen bana sinatu zuten joan den otsailaren 7an zenbait sindikatuk eta enpresak; bat Usurbilgo plantan bertako lantegirako eta bestea Valladolid-en, estatuko gainerako lantegietarako. LAB aurka agertu da.

Hilabeteak zeramatzaten Michelingo langileak lan hitzarmen duin bat eskatzen eta hitzarmen hori negoziatzera eseri zedila enpresari galdegiten. Udazkenaz geroztik mobilizazioak eta ordubeteko lan uzteak egin dituzte urtarrila amaiera bitarte. Otsailerako zortzi orduko bi lan uzte egun ere iragarriak zituzten.

“Prekarietateari eusten dio”

Joan den ostiralean berri eman zutenez orde, lan hitzarmena sinatu dute zenbait sindikatuek eta enpresak. LAB sindikatuak ohar bidez jakinarazi duenez, “argi eta garbi baztertzeko enpresa eta CCOO, UGT, CSI eta USOren artean Lasarte eta Gasteizko lantegientzat adostutako baldintzak ezartzea, egun dagoen prekarietateari eusten diotelako eta murrizketa berriak



Urtarrila amaiera bitarte mobilizazioak eta ordubeteko lan uzteak egin dituzte langileak.

LAB SINDIKATUA

“Salatu nahi dugu ez dela inolako soldata-igoerarik jasotzen 2019rako eta jardunaldia luzatu egingo dela. Onartezina iruditzen zaigu”

ere jasotzen dituztelako”.

Langileek eskatzen zituzten zenbait baldintza ez direla betetzen salatu du LAB-ek. “Salatu nahi dugu ez dela inolako soldata-igoerarik jasotzen

2019rako eta jardunaldia luzatu egingo dela (5x8 sistemarako), onartezina iruditzen zaiguna”. Gainera, “funtsezko hobekuntzarik ere ez dago lantegietan bizi den malgutasun basatian, ezta lan-osasunean, berdintasunean edo esparru sozialean ere”.

Langileen lan-baldintzak hobetzen segi asmoz

Urtebete igarota aldi baterako kontratuak mugagabe bilakatzeko jasotzen du hitzarmenak, baina LAB-en esanetan, “gogo-

ratu beharra dugu hau legeak zehazten duena betetzea baino ez dela. Hala ere, ez du sartu berrientzako soldata-eskala bikoitza bertan behera geratzea, aurreko hitzarmenean CCOO, UGT, CSI eta USOk onartu zutena”.

LAB sinaturiko hitzarmenaren aurka agertzeaz gain, “bere apostua da langileak izatea protagonista euren lan-baldintzen aldeko borrokan. LABek lanean jarraituko du langile guztien lan-baldintzak hobetzeko”.

Adinekoen egoitzetako langileak, beste hilabetez greban

Beste hilabetez, martxoaren 8ra arte luzatu dute Gipuzkoako adinekoen egoitzetako langileek jada 207 egunez egin duten greba. Lan hitzarmen duina, lan baldintza zein zerbitzu duina eskaini ahal izatea eskatzen ari diren grebalariei artean dira Usurbilgo zenbait langile ere. Gogor kritikatu dute langileok Patronalaren jarraera, “sektoreko langileei, erabiltzaileei eta haien familiei

adarra jotzen ari baitzaie, eta egoeratik etekina ateratzen saiatzen ari baita”, ELAren esanetan. Gainerako sindikatuak grebarekin bat egitera deitu dituzte. Otsailaren 12a baino lehen egoera aldatzen ez bada, negoziazio mahaian esertzeari uko egitekoa da ELA. Gipuzkoako Foru Aldundiari galdetu diote, “enpresen jarduera estaltzen eta diru publikoarekin finantzatzeko jarraituko ote duen”.



Langileek 207 egunez egin dute greba. Beste hilabetez luzatuko da.

“Ez gaude oso aberats diruz, ezta ere oinetakoz, baina eztarriz sano gabiltza, ta kanta nahi dugu gogoz”



Zubietako Eskolakoak frontoian aritu ziren kantari.



Aginagako Eskolako ikasleak eskuzabalik eta txalo artean hartu zituzten Aginaga Sagardotegian.



Udarregi ikastolako LHko ikasleek Santa Ageda bezperako koplak hartu zituzten ahotan.



Udarregi ikastolako DBHko ikasleak ere kantari aritu ziren.



Kantu Taldeak iluntzean hartu zien lekukoa ikastetxei. Kantu-jiran ibili ziren kalez kale.



Zubietako Bertso Eskolako kideak kalejiran ibili ziren Santa Ageda aurreko igandean.

Otsailak 29, larunbata HERNANIN, ORONA FUNDAZIOAN

SARRERAK SALGAI!

Bi saio:

- 1. saioa: 16:30ean
- 2. saioa: 18:30ean

Sarrerak:

7 € + 3 € elkartearen
laguntzarako, guztira: 10 €

Non erosi?

HERNANI: Dobera - Kronikako bulegoan
(Larramendi 11, behea)

ASTIGARRAGA: Merke azoka dendan
(Kale Nagusia 33)

URNIETA: 2KN okindegian
(Máximo Yurramendi 2)

**DO
BE
RA**
EUSKARIA
FUNDATIA

943 33 27 99
dobera@dobera.eus



Herri osoak ikus zaitzala nabi duzu?

IPINI ZURE IRAGARKIA HEMEN

Kontsulta itzazu tarifak
www.noaia.eus helbidean edota
deitu 943 36 03 21 zenbakira

noaia



Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubietan

EUSKAL INAUTERIAK

OTSAILAK 15 • LASARTE-ORIA

16:30 | Zubietan ekitaldia

Ondoren, Zubietatik Hipodromoko zubira **KALEJIRA**

17:00 | **DESFILEAREN HASIERA** (Hipodromoko zubitik herritik barrena)

19:00 | **SENIDETZEA, DANTZA eta SUAREN EKITALDIA**

(Okendo plazan)

Amaitzeko: Partaideentzako txokolatada goxoa Okendo plazan

Eguraldi txarra eginez gero, festa 17:30ean hasiko da
Oriarte-Landaberriko estalkian





Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ume usurbildar bat iritsi da etxera eta:

-Ama, ama, konturatu gabe izan da, ez dut propio egin!!

-Zer gertatu da, bada? -amak okerrena pentsatuz-. Berokia galdu ote du, norbaitekin iskanbilaren bat, konpondu berri ditugun betaurrekoak puskatu...

Beste ume bat bizikletarekin gerturatu da parkean eserita dagoen aitarengana:

-Aita, bizikleta garbitu dezaket nonbait?

-Zer dela-eta?

Familia bat kotxea hartzera joan da haurrak ikastolatik atera direnean. Autoan sartu, ateak itxi eta abiatu direnean denak deseroso, zeozer arraroa sumatzen dute.

Beste ume taldetxo bat belardiaren erditik doa korrika; bat harrapatzen eta gainerakoak ahalik eta azkarren korrika, nondik doazen begiratu ere egin gabe ia.

Beste gazte koadrila bat lasaia goa aldameneko espaloian behera, kontu kontari eta tarteka mugikorraren pantailari begira. Halako batean baten oihua entzun da eta besteen nazka aurpegiak eta komentarioak.

Usurbildar horiek denak herriko leku desberdinetatik pasa dira: espaloitik, belarditik, bidezidorretik, portal aurretik, denda paretik, kiroldegi ondotik, ikastola ingurutik, industrialde zabaletik, alda-

Zer dute usurbildar hauek?



“Usurbildar horiek denak herriko leku desberdinetatik pasa dira: espaloitik, belarditik, bidezidorretik, portal aurretik, denda paretik, kiroldegi ondotik, industrialde zabaletik... Eta denei gauza bera pasa zaie. Zer?”

AINHOA AZPIROTZ

“Familia bat kotxea hartzera joan da haurrak ikastolatik atera direnean. Autoan sartu, ateak itxi eta abiatu direnean denak deseroso, zeozer arraroa sumatzen dute”

patik zein ordekatik, ateri zenean zein eurtan, hoztuta zein berotuta, presaka zein lasai-lasai, bakarrik edo taldean... Eta denei gauza bera pasa zaie. Zer? Asmatuko zenukete? Imaginatu dezakezue zer izan daitekeen? Zertan duten antza horiek denek? Ba... txakur kaka zapaldu dutela!! Amarengana larri iritsi den umeak txakur kaka zapaldu du etxe ondoko espaloian; bizikletarekin zebilenak gurgilarekin zapaldu du; kotxean sartu den familia umearen oinetako azpiko txakur kakaren usainagatik ze-

goen deseroso; belarditik korrika zebiltzanek ez zuten denborarik belar arteko txakur kakak ikusteko; eta are gutxiago saihesteko; eta gazte koadrila horretakoak, nahiz eta txikitatik jakin espaloietan txakur kakak egoten direla, ez zuen espero zapaltzerik.

Edonori gerta dakioke, inor ez dago salbu, herritar batek esan zidan moduan, “auzoa minatuta baitaukagu”. Badaude bereziki leku batzuk... hortik pasa behar denean lau begirekin joan beharrekoak. “Gure txikiak denak zapaltzen ditu”, komentatu zidan beste batek. “Nik zepillo zahar bat daukat horretarako, zapaldu-tako txakur kaken arrastoak garbitzeko”, beste batek.

Ez daukat ezer txakurren kontra, baina bai haien kakak jasotzen ez dituztenen kontra. Txakur kakaren kiratsak ematen didan adinako nazka ematen dit jasotzen ez dutela

ikusteak. Zer esanik ez, jasotzen ez dutena zapaltzeak edo norbaitek zapaldu duela ikusteak; “Hara, hemen ere norbaiten hankak pasa dira. Gizajoa zapaldu duena, nori tokatu ote zaio gaur”, pentsatzen dut errukiz.

Horregatik eman dit izu-garrizko poza aste honetan bi pertsona beren txakurren kaka jasotzen ikusteak. Halako poza ematen dit, gerturatu eta esan egin diedala. Esan egin diet poza ematen didala kaka jasotzen dutela ikusteak. Lehenengo pertsona asteartean ikusi nuen eta esan zidan bere txakurra bezperako arratsaldetik zegoela etxetik atera gabe, eta noski, ateratzen duenean kaka eta txiza egiten dituela, gainerakoak bezala. Gaineratu zidan, berehala nabaritzen dela lotuta dagoen txakurra noiz gelditzen den kaka eta txiza egiteko. Nahiz eta beste alde-ara begiratu, antzematen dela. Txakurraekin doan antzematen duela, alegia. Bera txakur kaka jasotzen ikusi dut nik, eskutan bi poltsa zituela, eta ez zaio ongi iruditzen gainerakoak ez jasotzea. Asteazken goizean ikusi nuen bigarrena, hura ere poltsarekin belarditik ateratzen. Gerturatu eta esan egin nion hari ere poztzen nintzela txakur kaka jaso zuela ikustean. “Bai, niri ere gustatzen zait zelaira joan eta lasai ibiltzea” erantzun zidan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

Atxi
Parranda jatetxea
bazkariak EGUNERO
afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Erresidentzia eraikitze lanak hilabete barru hasiko dira

Matia Fundazioaren proiektuak baimen guztiak lortu ditu eta obrari ekiteko moduan da. Udal iturrien arabera, lanak hilabete barru hasiko dira.

Komentuko orubean

Kalezarren eraikiko dutena erresidentziatik haratago doan egitasmoa da. Udal iturrien arabera, “zaintzadun etxebizitzaren auzunea” eraikiko dute bertan. “Urte luzeetan komentua izandakoan egingo da auzunea. Hitzarmen sozial bat lantzen ari dira orain, hainbat zerbitzuren arteko integrazioa lantzeko”.

Aste honetako Tokiko Go-



Maketa honen itxura izango du Kalezarreko auzune berriak. Komentua zegoeneko tokian eraikiko dute.

bernu Batzordean onartu zuten urbanizazio proiektua. Horixe zen falta zuen azken

udal-tramitea. Gauzak ondo, hilabete barru hasiko dira garbiak lanean.

Grebaren aldeko mozioak soilik udal gobernu taldearen babesa jaso zuen

EHBilduk lan, pentsio eta bizi duinen aldeko greba orokorrari lotuta aurkeztu zuen atxikimendu mozioa onartu zuten urtarilaren 29ko udalbatzarrean. Udal gobernu taldeko kideek soilik babestu zuten mozioa; EAJ eta PSE aurka agertu ziren. Grebarekiko aurkakotasuna adierazi eta Madrilera begira direla adierazi zuten jeltzaileek. EAJ-k gizarte ongizateko politikako eskumenak euskal erakundeetara eskualdatzea ezinbestekotzat jotzen du eremu honetan, greba egunez plazaratu ziren hainbat aldarriri erantzuteko; esate baterako Gizarte Segurantzaren eskumenei lotutako eskualdaketak nabarmendu zituen EAJ-k. PSOE eta Unidas Podemosen Espainiako Gobernu berriarekin adostasunera heltzearen alde agertzen zen, hartara, 40 urte bete di-

tuen Gernikako Estatutua beteko litzatekeela iradokita.

Oposizioa aurka

EAJ-k bidegabetzat jo zuen Udalak greba egitea. Desados agertu ziren, greba ez egitea erabakitzen dutenen eskubideak babestea eskatzearekin batera.

Udal gobernu taldetik gogorazi zitzaie, asanblada bidez erabaki zutela udal langileek greba egitea. EAJ-k adierazitakoaren inguruan zioten, zergatik ez diren 40 urteetan transferitu aipatu eskumenak eta larrizat jo zuten udal gobernu taldetik, Madrilen esku uzten jarraitzea “gure lan eta pentsioen inguruko” auzia. Lan, pentsio eta bizi duinen inguruan Euskal Herriak duen burujabetza falta gogorazi zuten.

PSEk ere mozioaren aurka bozkatu zuen. Gogorazi zuenez, “gobernu hau (Espainiakoaz ari zen) oso berria da, duela hilabete osatu zuten” adierazi zuen Patxi Suarez zinegotziak. Iragarri zuenez, “gobernu aurrerakoi batekin, puntu sozial asko lortuko ditugu”. Horregatik irizten zion, urtarilaren 30ekoa ez zela greba orokor bat deitzeko une aproposena. Halere, “ados ez nagoen arren, errespetatzen dut greba eskubidea”.

Udal gobernu taldetik erantzun zioten, ezkerreko alderdi batentzat guztiz uztargarria dela gobernuan egon eta greba egitea. Eta PSE-k esandakoaren haritik, grebaren aldarriak betearaziak izateko desioa agertu zuen alkateak, “beste greba bat egin beharrik ez izateko”.

Baratze zaintzari lotutako hitzaldia Potxoenean

Hazi Fundazioak baratzea zaintzeari buruzko hitzaldi sorta antolatu du egunotarako. Azken saioa, ostegun honetan:

Otsailak 13, osteguna

■ 15:00-17:00 Zorriaren kontrol biologikoa. Julian Giner. Potxoenean.

■ 17:00-19:00 Kontrol fitosanitario integratua to-matean. Paco Sala. Potxoenean.

■ Matrikula: 36 euro.

Oharra:

Hitzaldiak erdaraz izango dira.

Izen ematea:

627 431 904

fpegipuzkoa@hazi.eus

Beterri Saretuz programaren jardunaldi berri bat

Parte-hartzean oinarrituriko enpresen ekosistema bat osatu nahian, bigarren jardunaldi bat antolatu dute Hernaniko Iturrola Elkarlan Sorgunean. Ostegun honetan egingo da bilkura, goizeko 9:30ean hasita.

“Ekonomia eraldatzailearen oinarrietako bat da parte-hartzea, eta ekosistema hori sortzeko, enpresek ez ezik, hezkuntza eragileek, ekintzaile sozialek eta administrazioak ere badute zeregina”, programaren sustatzaileek aditzera eman dutenez. “Hala, osteguneko jardunaldian horiek guztiak batuko dira, lan-mahaien bidez bakoitzak bere sektorean egin dezakeena aztertzeko”.

Partida galdu arren, Aitor Arangurennek kritika baikorrak jaso zituen

Estreinakoz Eskuz Binakako Pilota Txapelketan jokatu zuen aginagarrak otsailaren 7an Zestoan, Aimar Olaizolarekin batera, eskuan mina hartu zuen Mikel Urrutikoetxearen orde. Aurkariak nagusitu arren, kritika baikorrak jaso ditu Arangurennek hedabideen aldetik. “Arangurennek aurkezpen eskutitz polita utzi du”, izenburuarekin jaso du aginagarraren debutari buruzko kronika Diario Vascon. Etorkizun oparoa antzematen zaiola Aginagakoari nabarmendu du DV-k.

Defentsa lana nabarmendu zuen Garak

“Estreinaldi bikaina”, hala jaso zuen GARAK asteburuko kirolen saileko kronikan. Aginagarrak egundoko erakustaldia egin zuela dio aipatu hedabideak, nahiz lidergoan diren aurkariak nagusitu ziren azkenean. Aginagarraren defentsa lana nabarmendu du GARAK, baita hainbat tanto amaitzeko, aurrelari batek duen kalitate



Otsailaren 7an Aimar Olaizolarekin batera jokatu zuen Zestoan.

teknikoa erakutsi izana ere.

MD: “Ez zen kikildu”

Mundo Deportivo jaso duenez, irudi ona eskaini zuen aginagarrak. “Ez zen kikildu, Etxarrengoaren nagusitasunaren aurrean. Biek bi tanto egin da eta hiruna huts egiteekin amaitu zuten”.

ETB: “Maila onean aritu zen”

Euskal Telebistaren esanetan, “Aitor Aranguren debutaria maila onean aritu zen. Oso pilotaria da eta batipat defentsan egin zuen lan handia. Baina

bi tanto on ere bukatu zituen aurrean. Azkenak, 16 eta 17, aurkariengana tanto bakarrera gerturatzeko balio izan zien gorriei (Arangureni eta Olaizolari alegia)”.

17-22 izan zen partidako azken emaitza. Erik Jaka eta Jose Javier Zabaleta nagusitu ziren, eskuz binakako txapelketaren 12. jardunaldian. Finalurrerako sailkatu dira. Irribarria-Rezusta bikotearen aurka jokatu duten hurrengo neurketan erabakiko da Olaizola eta Urrutikoetxearen hurrengo faserako sailkapena.

Futbol partidak

Haranen

Otsailak 15, larunbata

■ 9:30 Eskola Kirola:

Udarregi 6B-Urnieta 6B

■ 16:00 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Añorga KKE

Oharra: infantilek ere neurketa jokatu dute. Aldizkari hau inprentara bidaltzerakoan ordua zehazteke genuen.

Eskubaloï partidak

Oiardo kiroldegian

Otsailak 15, larunbata

Eskola Kirola

■ 9:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6A-Urnieta 6B

■ 9:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6D-Urnieta 6A

■ 11:00 Infantil mutilak,

Diputazio Torneo:

-Udarregi A Usurbil

-Amenabar C ZKE

Usurbil K.E.

■ 16:00 Jubenil neskek,

Udaberri Torneo:

Usurbil K.E.-Lua Orio Eskubaloia

■ 17:45 Kadete neskek,

Diputazio Torneo:

Usurbil K.E.-Bera Bera Urdina

■ 19:30 Senior mutilak,

Gipuzkoako Txapelketa:

-Usurbil K.E.

-Aritzbatalde Taberna ZKE

Gipuzkoako

Trinkete txapelketa

Otsailak 16, igandea

Gipuzkoako Txapelketa

Eskuz binaka, Nagusiak 1. maila:

Iruran, 10:30ean

Pagazpe-Behar Zana 3

Otsailak 23, igandea

Gipuzkoako Txapelketa

Eskuz binaka, Nagusiak 1. maila:

Iruran, 10:30ean

Behar Zana 2-Pagazpe

Oriaren Traineru Jaitsiera

Oriako 26. Traineru Jaitsiera otsailaren 22an ospatuko da Aginagatik Oriara, 16:00-18:00 artean. Antolakuntzatik ohartarazi dutenez, jada 55 ontzik eman dute izena eta inskripzio epeak zabalik segitzen du oraindik. “Proba honen helburu nagusia

neguko prestaketak lantzen ari diren arraunlari eta elkarrekin progresioa testatzeko aukera izatea da”.

Bi distantzia

Proba bi modalitateetan jokatuko da; 4 kilometrokoa Agina-

gako Sarikolan hasi eta Orion amaituko da. 6.000 metrokoa Mapiletik Oriara jokatu da. “Elkarte eta prestatzaile bakoitzak bere prestakuntza araberako osatu dezala ibilbide bat edo bestea”, luzatu dute gonbita antolatzaileek.

txirriStra
TABERNA
 -Plater konbinatuak
 -Ogitartekoak
 -Pintxoak
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai; 2 logela, egongela, sukalde handia, 2 balkoi, dena kanpo aldera begira. Komuna duela gutxi berritua. 56m². Lokala 22m², garaje bezala eta sapai txiki bat trastelekutzat. Interesatuak 675 007 422.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabilta. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa ne-

goziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramuntu kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara:

607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaladiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Oduk, interna edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitezko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. T689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egingen esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza

baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen, arratsaldetan edo gauetan. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, garbiketan, orduka edo lanaldi osoz aritzeko. 633148710

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldaterekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142



Zorionak Mañel!!
Jada 12 urte beteko dituzu. Muxu handi bat Irati, ama eta aitaren partez.



Zorionak Ander eta Ione!! Otsailaren 8an eta 14an zuen urtebetetzea izan eta izango da!!! Ondo ospatuta eta ospatuko dituzuela seguru!! Jarraitu horrela! Muxu asko, familia osoaren partez!



Zorionak Xabi, Otsailaren 15ean 6 urte handi! Segi beti bezain pozik. Muxu potolo bat etxekoan partez. Berezi denak merezi!!

Heriotzak

Puri Alcorta

Lizargarate

73 urterekin hil zen



Jose Miguel Aizpurua

Oyarzabal

72 urterekin hil zen



Maria Morea Balda

74 urterekin hil zen



Jose Francisco

Esnaola Armendariz

88 urterekin hil zen



Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, deitu edo bidali whatsapp mezua bat lasai 688637679 zenbakira, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldean zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko prest. Erreferentziak ditut. Espe-

rientziaduna. 688 77 41 80.

Pertsona helduen zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Berehala hasteko prest. Esperientziaduna eta erreferentziak ditut. 658 45 36 76.

Emakume arduratsua, garbiketa lanak eta haur zein helduak zaintzeko prest. 617 75 15 22

Emakume bat etxeko nahiz zaintza lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest.

11:00-17:00 bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Tel 602 069 147

Lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta

langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Berehala lanean hasiko nintzateke. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaleetan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 617 064 054

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinari Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. T659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartearen bazkide berriak sartzeko plaza libre dago. Edozein zantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkartearen bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurriko da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreo - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretoa.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaia! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 13	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 14	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 15	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 16	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astelehena 17	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 18	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Asteazkena 19	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Otsailak 13 - Otsailak 23

Osteguna 20	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 21	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 22	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 23	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda otsaila

14 ostirala

- **Herriko argazkilarien erakusketa.** Ibai Arrietaren ikasleen argazkiak, otsailaren 23ra arte Sutegiko erakusketa aretoan ikusgai.
- **"Kontuz, ama naiz".** GuraSOSen ama taldearen postua, 18:00-20:00 frontoi inguruan.

15 larunbata

- **Herriko argazkilarien erakusketa.** Ibai Arrietaren ikasleen argazkiak, otsailaren 23ra arte Sutegiko erakusketa aretoan ikusgai.
- **"Zer du erraustegiak ezkutuan?"** hitzaldia Sutegin. 11:00etatik aurrera.

16 igandea

- **Herriko argazkilarien erakusketa.** Ibai Arrietaren ikasleen argazkiak, otsailaren 23ra arte Sutegiko erakusketa aretoan ikusgai.
- **"Kontuz, ama naiz".** GuraSOSen ama taldearen postua, 12:00-14:00 frontoi inguruan.

Inauteriak Zubietan hasiko dira

Zubietak abiatuko ditu larunbat honetan Inauterietako ospakizunak, Lasarte-Oriarekin senidetuko duten Euskal Inauteriekin.

Otsailak 15, larunbata

- 16:30 Zubietako plazan ekitaldia. Ondoren, Zubietatik Okendora kalejira.
- 17:00 Desfilearen hasiera: kalejira Lasarten barrena.
- 19:00 Senidetzea, dantza eta suaren ekitaldia.
- Amaitzeko, txokolate jana Okendo plazan. Oharra: eguraldi txarrarekin, festa 17:30ean egingo da Oriarten.

Otsailak 21, ostirala

- Egunean zehar, inauteri festak Udarregin, Aginaga eta Zubietako Eskoletan.
- Usurbilen:
- 19:15 Luzaideko konpartsaren kalejira.
 - 20:15 Luzaideko Bolantak frontoian.



Zubietatik Lasarte-Oriara abiatuko dira larunbat honetan, arratsaldeko 16:30ean.

Otsailak 22, larunbata: Inauteri Festa Usurbilen

- 12:00 Familia plana Zirimarako kideekin, Mikel Laboan.
- 12:30 Kalejira Gaztelekuko herensugearekin, Burrunbazale txarangarekin. Azken dantza frontoian.
- 16:00 Karaokea eta bingoa Gaztelekuan.
- 18:30 Dj ibiltaria Aztarrikaren karroza-ekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 20:00 Aztarrikaren performantzea frontoian.
- 00:00 Dantza festa: Iñorkinak, Kilimak.

Datozenak

Otsailaren 22an, Inauteri jaia

"Dantza" izango dugu aurtengo mozo-roetarako gaia, otsailaren 22an ospatuko dugun jaialdian. Dantzariak, txaranga, kontzertuak, jolasak... Egitaraia oparoa izango da beste behin ere.

Bilera irekia, Zubietako Herri Batzarrek deituta

Herri Batzarreko kideek bilera batera deitu dituzte zubietarrak. Aurtengorako nahiz legegaldi osorako egitasmoak azalduko dituzte bertan. Ekarpinak jasotzeko ere balioko du otsailaren 25erako iragarri duten duten bilerak.

Otsailaren 25ean asteartea

- Arratsaldeko 18:30ean.
- Zubietako Kaxkapen.
- Antolatzailea: Zubietako herri Batzarra.



Iaz osatu zen herri batzarreko lan-talde berria.

Sagarrondotik sagardorako bidea

Aurreko astean abiatu zen ikastaroa. Larunbat honetan Aitor Etxeandiarren txanda izango da.

- Otsailak 15: 9:00-13:00 "Sagastien neguko kimaketa, eta ongarriketara". Aitor Etxeandia.

- Ikastaroaren prezioa: 99 euro (Alkartasunako bazkideek doan). Egun solteetan izena eman daiteke: 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com
- Antolatzaileak: Alkartasuna Kooperatiba, Sagarki, Bizi Sagardoa eta Udala.

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

EROSKI / city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361 182



INAUTERIAK 2020

OTSAILAK 21-22 USURBIL



dantza



Otsailak 21, ostirala

19:15 Luzaideko konpartsaren kalejira.

20:15 Luzaideko Bolantak frontoian.

Otsailak 22, larunbata

12:00 Mikel Laboan familia plana ZIRIMARAko kideekin.

12:30 Kalejira GAZTELEKUko herensugearekin, BURRUNBAZALE txarangarekin. Azken dantza frontoian.

16:00 Gaztelekuan karaoke festa eta bingoa.

18:30 Mikel Laboatik abiatuta, DJ ibiltaria AZTARRIKAren karrozarekin.

20:00 frontoian, AZTARRIKAren eskutik performantzea.

00:00 **IÑORKINAK** eta **KILIMAK** taldearekin DANTZA festa.



noqua



Orbeldi dantza taldea, Zirimara taldea, Usurbilgo Gaztelekua, Aztarrika.



Herri bat irabazteko

Herri Batzarra

Usurbil
Potxoenean
Otsailak 20 | 18:30

Gonbidatua: **Eneko Maioz**

ehbildu